

FESTA GIROA

Bixente BARANDIARAN



- 1 -

Errenderia'n izandua naiz
ango lagunek deituta,
lenago ere aien artean
ibiltzen nago oituta.
Aurrera ere, aldan artean,
beti nai det segituta,
ni obetogo ez naiz izango
etxe zuloan sartuta.

- 2 -

Afari bat zan egitekoa
alako txoko batean,
berek aientzat artua duten
Amulleta Elkartean.
Ni ere pozik sartua nintzan
alako lagun artean,
dozenatxo bat artu litezke
orrelakoak urtean.

- 3 -

Langostino ta urdaiazpiko
ekin genion aurrena,
arrai zopa eder askua
eman ziguten urrena.
Arkume saltsan, ondoren berriz,
ondo beteaz barrena,
zorian berok artu itzazu
lagun Arruabarrena.

- 4 -

Lagundutzeko ez zan agertu
alako jende amutsa,
Joxemai Lopez, alde batetik,
eta Joxé Luix Lakunza.
Juanjo Zabala ta Salsamendi
onuntza eta aruntza,
pozgarria zan, aiek elkarri,
egin zioten laguntza.

- 5 -

Olaskoaga ere ez zagon
geldi egoteko ona,
zerbaitegatik dauka len ere
era orretako sona.
Gaztetatikan lan egiteko
berek du zoriona,
bear ainbeste ez da eskertzen
era ontako gizona!!

- 6 -

Afalondoan erregalitzat
giñuzen liburu bana,
lagun Arbelaiz orregatikan
ondo itzezin zuana.
Lendik badakit, lan ortarako,
asko balio duana,
bertaratzean, irriparezka,
inguratzen da gugana.

- 7 -

Ondorenean, Alkate Jaunak,
jatorki zigun itzezin,
gauzak ederki aitortu eta
izketan ez zun utsegin.
Berari gogoz entzutea zan
ango guzian atsegin
pozez sarrera egin nun bañan
pena aundiaz aldegin.

- 8 -

Etixeratzeko gero taxista
nuen Juan Karlos Jimenez,
etxe ondora ekarri nindun
buelta pranko emanaz.
Gustora asko partitu giñan
eskarrikasko esanez,
orain bertsoak jartzen dizkiet
lagun guzien omenez.

- 9 -

Berriro ere agurtu nairik
Errenderi'ko lagunak,
ez zaizkit azten, zuen artean,
igarotako egunak.
Orko aurpegi alaiek eta
zuen izketa lagunak,
guziak pozez artu bearko
bate biotzikan dunak.

- 10 -

Zuek dezuten idea ortan
artu nai nuke nik parte,
gustoko lanak ni ere ez nau
estutu izandu bate.
Lendikan ere itz eman nuen
orixe nai nuen bete,
Errenderi'ko, lagun guziet,
agur Madalenak arte!!